



Liburutegi Nagusia Alderdi Eder

2023ko martxoaren 7a

<http://www.donostiakultura.com/liburutegiak/>

Arrate Egaña

(Errenteria, 1963)

Arrate Egaña Errenterian jaio zen, 1963an. Bilbon lan egiten du, hizkuntzen teknikari gisa, ISEI-n, EAEko irakas-sistema ebaluatu eta ikertzen duen Hezkuntza Saileko erakundea.

Hogeita hamar liburu inguru argitaratu ditu ume, gazte eta helduentzat, hainbat generotakoak (antzerkia, eleberria, ipuina...). Literatur sari batzuk irabazi ditu, hala nola *Baporea* (1999), *Erroxape* (2000), *Emakumeak Kontari* (2002), *Lizardi* (2011), *Gabriel Aresti* (2012), *Donostia Hiria* (2012) eta *Mikel Zarate* (2015).

Filologia Hispanikoan lizentziaduna da, eta literatura eta gidoigintza ikasketak egin ditu.

Itzalen distira



Oroitzapen gogaikarri bat atzean uzteko beharra duen preso ohia. Aitaren hileta-elizkizuna fede-krisi betean dagoen apaizaren esku utzi nahi duen andre atea. Leihotik ikusten duen neskatxa batenganako obsesioak jotako atsoa. Ehiztariek utzitako hondakinak garbitzeko ardura hartu duen neska pareia. Iktus bat izan ostean azkenekoa izan litekeen bidaia aspergarria abiatu duen emakumea. Irakasle ohi batekin topo egitean nerabezaroko maitasun-istorio bat berpizten zaion gaztea. Fikzio-adikzioak pasadizo ero batean murgildu duen emakumea. Ezusteko albiste ilun batek argira daramatzan hiru andre.

Ipuinen protagonistek, harrapatuta dauzkaten egoera tragikomikoetatik abiatuta, aurre egin beharko diete obsesioari, ihes egiten dien denborari, heriotzari edota sakrifizioari. Arrotza zaiguna ulertzeko aukera emango digu Arrate Egañaren bilduma honek.

Arrate Egañaren argitalpenak (hautaketa)

Printzesa puzkertia (1999)
Benetako pirata (2001)
Kixmi elurpean (2005)
Txita more txikia (2007)
Hizkuntza sekretuak (2008)
Giltza (2011)
Paradisua (2012) **N EGA**
Egia (2012) **T EGA**
Itzalen distira (2022) **N EGA**

Elkarrizketa Arrate Egañari

Berria, 2022ko azaroak 11, Andoni Imaz

Ez dago ilunik argirik gabe, eta Arrate Egañak (Errenteria, Gipuzkoa, 1963) eskala osoa jaso nahi izan du Itzalen distira liburuko ipuinetan (Erein). Ezohiko egoeretan harrapatutako pertsonaiak marraztu ditu, eta sakrifizioaren orbana sumatzen du denengan: oroitzapen lazgarri bat atzean uzteko beharra duen preso ohia, aitaren hileta elizkizuna fede krisi betean dagoen apaizaren esku utzi nahi duen andre atea, fikzioaren adikzioak zulo batean sartu duen emakumea... «Bi aldeetan jarri naiz, irakurleak erabakitzeke zer posiziotan jarriko litzatekeen bera».

Ipuinen giro errealista bihurritu egiten da uneren batean. Zein izaten da haiek idazteko bidea?

Gustatzen zait egoera batzuk luzatzea muturreraino, erradikalagoak bihurtzea, eta ikustea pertsonaiek nola funtzionatzen duten egoera horiekin. Askotan, ideia bera nahiko eroa da hasieratik. Esaterako, azken ipuinaren ideia, ehiztaria ehizatua izatearena, beti eduki dut buruan. Olga Tokarczuken Erabili goldea hilen hezurren gainetik liburua ildo horretatik doa, eta asko gustatu zitzaidan, bai ideia, bai nola dagoen idatzia.

Gogor bukatu duzu liburua, 'Mercy' eman izeneko ipuin horrekin. Istripuz hildako ehiztarien misterioa argitzen da...

Bai, agian inpaktantea da pertsona askorentzat... Batek esan zidan gehiegizkoa zela. Igual oso zerebrala da, oso hotza, baina banaiz animalien eskubideen aldekoa. Historia osoan asko sufritu dute, erori dira bata bestearen atzetik, eta orain, nahiz eta gauza batzuk lortu, ez da nahikoa, ezta urrutitik ere. Mendeku txiki-txiki bat da. Naturara ere asko jotzen dut. Agian pixka bat idealizatuta, zeren, ikusten duzu, nire mundua oso urbanoa da, baina inportantea da niretzat.

Lehen ipuinak, Marquez izenekoak, Gabriel Aresti saria irabazi zuen, 2013an. Lagundu zizun libururako tonu bat sortzen?

Egia esan, denboran pixka bat aparte doa dena. Liburua osatu aurretik, ipuin guztiak eginak nituen, argitaratu direnak eta kanpoan utzi ditugun hiruzpalau, eta gero editatu genituen argi-ilunen gaiarekin lotura zutenak.

Gai hori gogoan izan zenuen idaztean, ala edizioan atera da?

Konturatzen nintzen hor nenbilela, zeren, ideia hori muturreraino eramanda, iristen zara sakrifizioa. Zerbaiten alde egiten duzu, zu izorratuta eta bestea onuragarri irtenda. Ideia hori beti interesatu zait: nola denbora guztian aukeratzen dugun zer pauso eman, eta nola beste batzuk atzean gelditzen diren. Ni batzuetan kontziente izan naiz atzean utzi dudanak sekulako mina eman didala. Batzuen sakrifizioa besteen onura dela ikusten da ipuinetan.

Egoerak muturrera eraman arren, pertsonaien psikologia garrantzitsuagoa da edozein gertakari bitxi baino.

Interesatzen zait pertsonaiak ez izatea alderrai dabilzan aktore batzuk, baizik eta pisua izatea. Nahiz eta ipuinetan orrialde gutxi eduki beren istorioak garatzeko, saiatzen naiz lehenbailehen zehazten, eta hor jokoan sartzen dira emozioak. Uste dut batzuei nire ipuinak pixka bat hotzak egiten zaizkiela; niri asko interesatzen zaizkit emozioak, baina ez naiz batere sentimentala. Umorea erabiltzea ere gustatzen zait, eta uste dut umorea eta sentimentalismoa ez datozela bat.

Atzetik istorio interesgarria dute, adibidez, Imersoko bidaiara gogoz kontra doan emakumeak, edo umetako bere antza duen neskatila batekin obsesionatzen denak.

Gainera, bi horiek adineko pertsonak dira, eta azken bolada honetan asko erreparatzen diet horrelako pertsonari eta pertsonaiei. Askotan tratatzen ditugu, bereziki emakumeak, esanez bezala: «Bueno, ja zaharrak dira, bideratu egin behar ditugu». Ematen du zahartzen zarenean uzten diozula pertsona normala izateari. Saiatu naiz emakume libreak jartzen.

Ipuinetako gizonak ere ez dira oso ohikoak; bortxatutako preso ohia, adibidez.

Denak dira pixka bat atipikoak, bai. Emakumeak ahaldunduta proiektatzen ditut, boterea ematen diet, nahiz eta protagonistak ez izan. Bortxatua izan den gizon bat ere arraroa da. Eta Itzalak ipuineko gizona negar batean hasten da jakiten duenean bere amorantea gaixo dagoela. Maitasunagatik negar egitea ere ez da oso ohikoa.

Haurrentzako lanak maiz argitaratu arren, eten luze samar bat izan duzu helduen literaturan.

Nire idazteko erritmoa aldakorra da, irregularra. Segun nola nagoen... Ez da bakarrik lana, ez da bakarrik denbora. Neuk egon behar dut idazteko moduan. Umeentzat idazten oso ondo pasatzen dut. Ni hasi nintzen idazten helduentzat, gaztelaniaz —Filologia Hispanikoa ikasi nuen—, eta alabak jaio zirenean interesatu nintzen mundu horrekin. Inoiz ez dut utzi helduentzako literatura. Idaztea ez da izaten erabaki kontziente bat, intuizioari men egiten diot.

Orain, ari zara idazten?

Ba, ez, momentu honetan ez asko. Ikasturtea lan askorekin hasi dut, eta, zorionez, liburuarekin deitzen didate toki batzuetatik. Orain ari naiz kasik inkontzienteki idatzi ditudan gauzei buelta bilatzen: zergatik dikotomia hau, umorea nola... Baditut proiektuak, baina ez naiz hasi idazten.

Zeuk marraztutako koadro baten zati bat eraman duzu azalera. Pinturak zer leku du zugan?

Beti pintatu dut, txikitatik. Azaleko koadroa duela urte pila bat egin nuen, eta orduan ere sakrifizioaren ideia nuen buruan. Gustuko dut pintatzea, baina ahal dudanean bakarrik egiten dut.

Kritikak esandakoak

“...eta zaila da definitzea ongizatearen gizartean bizi garenontzat narraziook eragiten duten ezinegona, horixe baitu Egañak ezaugarriak berezkoena, heriotzaren zein bizitzaren aurrean bizi dugun hori neurritz islatzea. Alta bada, zenbait narraziotan ez da falta itolarri horretatik askatu gaitzen umore tantarik zein hausnarketarako aukerarik, Lolitaren ama izenburukoan batez ere, liburuko lortuenetakoa bestalde.

Edukiei dagokienez erabat independenteak izan arren, kontakizunotan badira zenbait elementu, kasik ezkupean antzeman daitezkeenak, narraziook harilkatzen dituztenak. Gizabanakoaren hustasuna zahartze prozesuan, porrot egiten duten familiaren egitura arkaiko zein modernoan islak, ongizatearen gizartearen kontra jasan kolpeak... Egañaren narratzeko moldeak badu, halaber, egilearen markarik, hala nola, prosa zuzena eta irakurteraza, ez dago hornikuntza formaletarako betarik, narrazioaren ildo pausatzeko erabilitako zenbait naturarekiko atxikimendu ez bada. Narrazioan, orobat, antzeman daiteke existentziaren gazi-goza ez duela estilo lar zamatuen beharizanik. Istorioak kontatzea xede denean, egileak maisutasuna agertuko du zehatz eta erritmo neurtuan kontatzeko, beste kontu bat da istorio guztiok nahiko interesgarriak diren, irakurle bakoitzak mapa propioa baitu.

Narrazio guztiek badute gure gizartearen eredu pertsonal zein kolektibo batzuen berri emateko asmorik, esan liteke nolabait gizarte-ipuingintza baten aurrean gaudela, eta horrek, ene irudikoz, baditu argi ilunak eta distirak, batez ere pertsonaiak oso eredugarriak direnean, hitzaren zentzurik zabalenean. Alta bada, Egañak badaki nolabaiteko ongizatearen gizartearen potret gazi-gozo horretatik aldentzen, narrazio ildoan eztanda egingo duen ezustekoak agertzen direnean batez ere. Eta kasurik nabarmenena *Marquez* lehen ipuina dugu. ETAko preso ohi baten gizarteratze prozesu latzaren osagai ohikoenak kontatu ondoren, haren presondegiko iraganeko gertaera ezusteko batek eztanda egingo du narrazioan, hor emango du onena Egañak. Badaude narrazio apalagoak liburuan, hala nola, hirugarren adinaren berri ematen duen Nigan bizi den beste hori eta Itzalak esaterako, hor biltzen baitira literatura mota horren alderik aspergarrienak, bi narraziooi erakargarritasun falta antzematen baitzaie.

Hala ere, Egañak liburuko azken bi narrazioetan bere gorena lortzen du tentsio narratiboari eustea erdiesten duenean, narratzaile ondua dela erakusten baitu *Final Destination*, “Bitxia da telebista. Bizitza jaten du, eta, aldi berean, heriotza urrundu”, eta *Mercy eman* izenburukoetan, bitxiki biak ala biak ingelesezko titullarrak, non artisau landuaren dohainak agertzen baitituen.”

Hasier Rekondo / Deia, 2022-07-30

Erabilitako iturriak

Erein

<https://www.erein.eus/autor/arrate-egana>

Wikipedia

https://eu.wikipedia.org/wiki/Arrate_Ega%C3%B1a

Kritiken hemeroteka

<https://kritikak.armiarma.eus/?p=8612>

Literaturaren zubitegia

<https://zubitegia.armiarma.eus/?i=202>

Berria

<https://www.berria.eus/paperekoa/1857/021/001/2022-11-11/interesatzen-zaizkit-emozioak-baina-ez-sentimentalismoa.htm>